

2025 PROIEKTU DEIALDIA: FIKZIOZKO FILM LABURRAK

Akitania Berria eskualdearekin hitzartu 2025-2027ko helburu eta baliabide kontratuaren kariatara, Kanaldude telebista kateak, 2025an, fikziozko film laburrentzat (irudi errealak eda animazioa) proiektu deialdi bat proposatzen du.

Proiektu-deialdiaren bururatzea: 2025eko apirilak 10

Txostenak telebista katean aztertuak izanen dira, mundu profesionaletik datozen irakurleekin osatu hautaketa-batzordean. 2025an, Kanaldude engaiatzen da 2 film laburren aurre-erostea, orotara 20 000 euroren ekarpena eginez (10 000 € film bakoitzeko). Proiektu eramaileei azkarki aholkatzen zaie hautagarritasun irizpideak kontutan hartzea.

PROIEKTUEN HAUTAKETA

Telebista kateko ordezkariak eta mundu profesionaletik datozen irakurleek hautaketa-batzorde bat osatuko dute. Proiektuen alde bateko hautaketa 2025ko maiatzaren bukaeran berantenez eginen da.

HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEAK

MOTA: sorkuntza-dokumentala.

HAUTAGAIK: Proiektuek gutenez ondoko irizpide bat bete behar dute*:

~ Proiektua eramaten duen ekoizpen-egitura Akitania Berria eskualdeko lurraldean finkatua izan behar da eta nagusiki ikus-entzun edo zinema ekoizten du (APE 5911 A edo C kodea duten sozietate edo elkarteak);

~ Proiektua eramaten duen autore edo zuzendariak bere bizitegi nagusia Akitania Berria eskualdeko lurraldean du;

~ Proiektuak harreman azkarra du Akitania Berriarekin (eta Euskal Herriarekin bereziki): filmaren gaia, pertsonaiak edo filmaketa edo/eta postprodukzio denbora parte haundi bat eskualdean gauzatua.

**Proiektua Frantziar estatu kanpokoak bada, Frantzian finkatua dagoen koproduktorea izatea beharrezkoa izango da.*

GAIA: Libre.

FILMAREN JATORRIZKO HIZKUNTZA: Euskara (elkarrizketen %30a bederen).

BESTE IRIZPIDEAK: Irakurketa-batzordeak ondoko irizpideei kasu egingen die:

~ Proiektuak kalitatezkoak izatea: proposatu gaien egokitasuna, gidoiaren kalitatea eta taula zuzendaritzaren originaltasuna,

~ Produkzio eta banaketa estrategia,

~ 2027an hedatzeko prest izatea,

~ Proiektuaren kariatara euskarazko gaitasun artistikoei edota teknikoei dei egitea edo horretarako formatzea,

~ Proiektuek CNC eta Akiatania Berria eskualdeko diru-laguntzen irizpideei erantzutea (laguntza automatikoak edo selektiboak).

PROIEKTUEN AZTERKETA

Film laburrei dedikatu diru-laguntzak galdegiteko eta muntaketa finantziario baten perspektiban, txostena nagusiki frantsesez idatzia izatea aholkatua da. Gidoia euskaraz idatzia izan daiteke.

Proiektuak 2025eko apirilaren 10a arte igor daitezke, e-postaz, fitxategi bakarrean (PDF formatuan, gehienez 10 Mo) helbide honetara: deialdiak@kanaldude.eus

Proiektuen hautagarritasuna egiaztatu ondoan eskuratze-agiri bat igorriko zaie proiektu-eramaileei, proiektua errezibitu den egunetik goiti aste bat barne.

Emaitzak 2025eko maiatzaren bukaeran entregatuko dira.

Txostenean ondoko elementuak agertu beharko dira:

~ Fitxa tekniko bat autore, zuzendari, produktore eta koproduktoreen deitura helbideekin; produkzioaren plangintzarekin; filmaren ezaugarri teknikoekin (iraupena, formatua...); filmaketa eta postprodukzio lekuekin; talde artistiko eta teknikoaren zerrendarekin,

~ Filmaren laburpena,

~ Autorearen edo zuzendariaren xede nota,

~ Produktorearen xede nota,

~ Gidoia,

~ Zuzendaritza nota bat filmaren tratamendua zehazteko,

~ Aurrekontu zehatza,

~ Finantzamendu plana, bildu diren finantzamenduak zehaztuz,

~ Autoreen eta film egileen CVa,

~ Proiektu-eramaile den produkzio sozietatearen edo elkartearen aurkezpena,

~ Autorearen eta produktorearen artean izenpetu eskubideen lagatze kontratuaren kopia bat.

Kontaktua:

Loïc Legrand
+335 24 34 50 14
loic@kanaldude.eus
